

BASQUE CHALLENGE LEHIAKETAREN OINARRIAK

LEHENA. Bi eratara parte har daiteke lehiaketan:

1) Sare sozialetan bideoa partekatuz eta lagunei erronka bidaliz (aipatuz).

- **Twitter:** Bideoa #BasqueChallenge hashtag-arekin birtxiotzea eta lagun bat edo gehiago aipatzea.
- **Instagram:** Bideoa birpostatzea eta lagun bat edo gehiago aipatzea.
- **Facebook:** Bideoa era publikoan partekatzea eta bideoko iruzkin gisa lagun bat edo gehiago aipatzea.

Metodo honek partaide bakoitzari zozketarako zenbaki 1 esleituko dio.

2) Sare sozialetara honako informazioa duen bideoa igoz: Izena, jatorri-herraldea (ama hizkuntzan), eta "Basque Challenge" esaldia irakurritz. "Ni gai naiz, zuek ere izango al zinatekete?"

- **Twitter:** Kontu publikoan #BasqueChallenge hashtag-a duen bideoa txiokatzea.
- **Instagram:** Kontu publikoan #BasqueChallenge hashtag-a duen bideoa.
- **Facebook:** Kontu pribatuetan bideoa Donostia Turismoa ([facebook.com/sansebastian.turismo](https://www.facebook.com/sansebastian.turismo)) kontuko denbora-lerroan edo orrialde honetan bertan #BasqueChallenge-ari buruz publikatutako bideoaren erantzunen tartean. Argitalpena publiko egiten bada bideoa norberaren denbora-lerroan egin daiteke.

Metodo honek partaide bakoitzari zozketarako 5 zenbaki esleituko dizkio.

BIGARRENA.

Lehiaketan Instagrameko (kontu publikoa), Twitterreko (kontu publikoa) edo Facebookeko (kontu publiko / pribatua) sare sozialetako erabiltzaileek parte har dezakete.

HIRUGARRENA.

Bideoak ezingo du minutu bat baino gehiago iraun.

LAUGARRENA.

Edozein sare sozialetan parte hartuz baldintzak bete dituzten erabiltzaile guztien arteko zozketa egingo da irabazlea hautatzeko. Irabazlea ez bada Donostia Turismoarekin 72 orduan harremanetan jartzen, zozketa berria egingo da.

BOSGARRENA.

Bideoak aurkezteko epea urriaren **1ean hasiko da eta azaroaren 30eko 23:59an amaituko** da.

SEIGARRENA.

Lehiakideek erantzukizun osoa izango dute aurkeztutako lanetan hirugarrenen eskubiderik ez izateko.

ZAZPIGARRENA.

Lehiaketan saritutako erabiltzaileak 2 lagunentzako bazkaria irabaziko du 3 Michelin izar dituen Arzak jatetxean. Urtebeteko epemuga izango du, erreserbatzeko aukera jatetxea libre egoteari lotuta egongo da eta aurrez 0034 943 27 84 65 telefonora deituz egin beharko da.

ZORTZIGARRENA.

Donostia Turismoak iruzurrezko edo beste partaide batzuk iraintzeko ekintzak egiten ari diren pertsonetikiko partaidetza-eskubidea gordetzen du.

BEDERATZIGARRENA.

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

HAMARGARRENA.

Zozketaren emaitza **abenduaren 3an (igandea), Euskararen Egunean**, jakinaraziko da Donostia Turismoaren Facebook orri ofizialen eta Twitter eta Instagram profilen nahiz web orri ofizialaren www.sansebastianturismo.com bidez.

HAMAIKAGARRENA

Lehiaketa hau San Sebastián Turismo & Convention Bureauk antolatu du eta bertan ez dute parte-hartzerik eta erantzukizunik INSTAGRAM. INCEK eta FACEBOOKek eta TWITTERrek.

HAMABIGARRENA.

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek Donostia Turismoari utziko dizkiote, mugarik gabe, aurkeztutako lanaren gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak. Donostia Turismoari bideoa bere web orrian eta sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram, Pinterest, Youtube) argitaratzeko eta erabiltzeko baimena emango diote.

HAMAHIRUGARRENA.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak osorik onartzea.